

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA


SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Nafarroako Gobernuak 2,5 milioi euroko gastua baimendu du Sarrigurengo ikastetxea zabaltzeko

*Egiteke dagoen azken fasea da, Lehen Hezkuntzako ikasleentzako instalazioei dagokiena*

Miércoles, 14 de octubre de 2015

Nafarroako Gobernuak 2,5 milioi euroko gastua baimendu du Sarrigurengo ikastetxe publikoko obren B faseari ekiteko; fase horren barnean, Lehen Hezkuntzari dagozkion espazio nahiz instalazioak sartzten dira bereziki. Hornidura berriak 2016/2017 ikasturtean funtzionamenduan jartzea espero da.



Sarrigurengo ikastetxe publikoa.

Sarrigurenek Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publiko bat zuen, 2009an eraikia eta 2010ean zabaldua, 980 lagunentzako lekuarekin. Ikasturte honetan eta hurrengoetan ikasle-kopurua asko haziko zela ikusita, zentroa handitzea erabaki zen, 3 eta 12 urte arteko beste 675 ikaslerentzako lekua izango zuena.

Hiru jarduketa-eremutan proposatu zen proiektua. Bitan (A eta C faseak), obrak 2015eko lehen seihilekoan egin dira, 2 milioi euroko aurrekontuarekin, eta instalazioak martxan daude jadanik.

Orain ekingo zaion B fasean, Lehen Hezkuntzako 16 ikasgela izango dituen behe eta lehen solairuko eraikin bat egingo da, bai eta musika, hizkuntz, informatika eta erabilera anitzeko berariazko beste ikasgela batzuk ere. Instalazioak liburutegi, bulego eta zerbitzu-arloekin (biltegia, komunak...) osatuko dira.

Baimendutako gastutik, 100.000 euro aurtengo aurrekontuarekin finantzatzea aurreikusten da, eta 2,4 milioi, 2016ko aurrekontuaren kargura.

### Jadanik eginda dauden bi jarduketa

A fasearen barnean, Haur Hezkuntzako bederatzi ikasgela sartu dira eta psikomotrizitateko beste bat, gimnasioa hari lotutako gelek (biltegia eta aldagelak) eta administrazioeko espazioak (irakasleen gela, idazkaritza...). Aurreikusitako aurrekontua 1.603.921 euro da, eta Nafarroako Gobernuak Hezkuntzako Departamentuak finantzatu du.

Bestalde, "C" eremua jantokiko instalazioei dagokie (jantokia bera,

sukaldea, biltegia eta langileentzako aldagelak). Hornidura horretarako kostua 404.682 euro da, kopuru horretatik 354.682 euro obrari berari dagozkio, eta 50.000 euro sukaldeko ekipamenduari. "C" eremuko kostua Eguesibarreko Udalak bere gain hartu du. Xede horrekin, udalak eta Hezkuntzako Departamentuak hitzarmena sinatu zuten bere garaian.